

“Nire bila ibiliko zarete eta aurkituko nauzue, bihotz osoz ibiliko baitzarete nire bila.” Jeremias 29:13

Nola Ezagutu Jainkoa

Nola Ezagutu Jainkoa

Abrahan “Jainkoaren adiskide bat” izan zen bezala, bere menpetasunagatik eta obedienciaz Jainkoari, zuk baita ere Jainkoa ezagu dezakezu eta bere errukitasuna, bakea, eta bedeinkapena experimenta ditzakezu. Jainkoa ezagutzea harengan benetan sinesmenari esker bizitzako experientzia baliogarriegia da. Zein miragarria da Jainkoak bere berea agertzen diela haien bihotz osoz bilatzen duten guztiei.

Zure bide beretik bihurtzen bazara eta Jainkoari meneratzen bazara, Haren Izpiritua zuregan bizi izango da. Ezerik aldenduko zaitu bere maitasunetik Haren promesak fidatzekoaneta menekotasunez Hura jarraitzekoan. Hura zure Jainkoa izango da, eta zu bere edukitza balio handikoa izango zara. Zuk aurkituko duzu Hark zu balio handikoaz erosi zintuztela, eta zurekin elkartasunean bizi nahi du, orain eta betirako.

Eskatu iezaiozu Jainkoari zuri ulermena ematea Jainkoaren Hitzaren aipueraketako orrialde hauek ikastekoan. Jainkoak gizon santuak inspiratu zituen hitz hauek idazteko eta mirariz babes egin zituen mende-mendetan zehar nahiz eta Satanasen saialdi guztiak desegiteko.

Bibliako textua erabilita “Elizen Arteko Biblia” izan da, Bibli Elkarte Batuak, 1994, K/Santa Engracia, 133, 28003 Madrid, Espaina. Baimena lortuta.

Jauna da gure Jainkoa, Jauna bat bakarra da! Maita ezazu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz eta indar guztiz.

—Deuteronomioa 6:4b, 5

Jaunak sortu du zerua, bera da Jainkoa; berak eratu eta egin du lurra, berak finkatu; ez du hutsik egoteko sortu, bizileku izateko baizik. Hau dio Jaunak: “Neu naiz Jauna, ez da besterik.”

—Isaias 45:18

Ni naiz Jauna, horixe dut izena: ez diot neure ospea inori utziko, ez niri zor zaidan gorrespena idoloiei emango.

—Isaias 42:8

Jakin dezatela lurreko herri guztiek Jauna Jainko dela, eta ez dela besterik.

—1 Erregeak 8:60

Honela diot nik, Jaun honek: Zuek zarete nire lekuko,...ni ezagutu, niregan sinetsi eta ni beti berbera naizela uler dezazuen. Nire aurretik ez da jainkorik izan, ezta izango ere nire ondoren. Neu naiz Jauna, neu; ez da ni beste salbatzailerik.

—Isaias 43:10, 11

Lurreko bazter guztiok, itzuli niregana, salba zaitetzen, neu bainaiz Jainkoa, eta ez da besterik.

—Isaias 45:22

2 JAINKOA ERRUKITSU

Bihozbera eta errukiorra da Jauna, haserregaitza eta onginahiz betea. Nola zerua lurraren gainean garai, hala haren maitasuna begirune diotenentzat handi.

—Salmo 103:8, 11

Jaunaren maitasunak sekulako dirau begirune diotenentzat... legeak betetzen dituztenentzat.

—Salmo 103:17a, 18b

Jaunaren onginahia ez dela amaitu, haren errukia ez dela agortu.

—Negar Kantak 3:22

Zein zu bezalako Jainkorik, zeurea duzun herrian bizirik geldituei gaiztakeria barkatu?...

ETA BIHOZBERA DA

onginahia baituzu atsegin.

—Mikeas 7:18

Atsekabea ematen badu ere, errukitu egiten da bere neurrigabeko onginahiz.

—Negar Kantak 3:32

Leialarentzat leial zara.

—Salmo 18:26a

Goretsazue Jauna, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.

— 1. Kronikak 16:34

“Banekien nik Jainko bihozbera eta errukiorra zarena, haserregaitza eta onginahiz betea, bere mehatxuez damutzen dena.”

— Jonas 4:2b

Urrutik agertu natzaio eta esan diot: Maite zaitu, betidanik maite, horregatik natzaizu etengabe leial.
—Jeremias 31:3

Gogoan dut zuen alde erabakia dudan egitasmoa, zuen zorionerakoa eta ez zuen zoritxarrerakoa, itxaropenez beteriko etorkizuna emango baitizuet. Hala diot nik, Jaunak.

—Jeremias 29:11

“Maite zaituztet”, dio Jaunak.

—Malakias 1:2a

Nola aita seme-alabentzat errukior, hala Jauna begirune diotentzat errukior. —Salmo 103:13

Hara, samina bake bihurtu zait.

Nire bizia hondamen-leizean erortzetik gorde duzu, bizkarra eman baitiezu nire bekatu guztiei.
—Isaias 38:17

Eta guk ezagutu dugu eta sine-tsi Jainkoak digun maitasuna. Beraz, maita dezagun, Jainkoak maitatu baikintuen lehenik.

—1 Joan 4:16a, 19

Zure Jainko Jauna zurekin dago, salbatzeko ahaltsu! Pozik bai pozik dago zurekin. Bere maitasunez biziberritzen zaitu. Pozez jauzika eta kantari dago zuregatik.

—Sofonias 3:17

Bai zoragarria zure maitasuna, oi Jainko!
—Salmo 36:8a

GAUZA HANDIENA JAINKOA EZAGUTZEA DA BIZITZAN

Baina sendo iraungo dute eta gogor ekingo Jainkoa ezagutzen dutenek. —Daniel 11:32b

“Harrotu nahi duena, harro bedi honetaz: ni ezagutzeko aski argi izateaz, ni Jauna, solidari-tza, justizia eta zuzenbidea mun-
duan ezartzen dituen. Horiek ditut atsegin.” Nik, Jaunak, esa-na. —Jeremias 9:23

Zorionekoak, haren xedapenak betez, bihotz-bihotzez harengana jotzen dutenak! —Salmo 119:2

“Bizia eta heriotza jartzen dizkizuet aukeran, bedeinkazioa eta madarikazioa. Aukeratu bizia,

bizi zaitezten, bai zeuek, bai zuen ondorengoak. Horretarako, maita ezazue Jauna zeuen Jainkoa, obeditu eta bizi berari atxikiak, horretan baitatza zuen bizia.”

—Deuteronomioa 30:19b, 20a

Nahiago dut maitasuna sakrifizioak baino, Jainkoa aintzat hartzea erre-opariak eskaintzea baino. —Oseas 6:6

Basahuntza irrikaz erre-kara bezala, halaxe ni zuregana, ene Jainko. —Salmo 42:2

Jaunak esan zion: “Ni neu joango naiz zurekin eta atsedean eman-go dizut.” —Irteera 33:14

JAINKOARENGANDIK BURUJABERIK

BIZITZEA HERIOZKORRA DA

5

“Zuek Jaunarekin bateginik bazaudete, bera ere zeuekin izango duzue. Beraren bila ibiltzen bazarete, aurkitu ahal izango duzue. Baztertzen baduzue, berak ere baztertu egingo zaituzte.”

—2 Kronikak 15:2b

“Baina Jaunaren esana entzun ez eta beraren hitza gutxiesten baduzue, bere eskua jasoko du Jaunak zuen aurka.”

—1 Samuel 12:15a

Badira zuzen-itxurako jokabi-deak, baina azken finean heriotzarantz daramate.

—Esaera Zaharrak 16:25

Izan ere, badaki Jaunak gizon zintzoak probalditik ateratzen eta gaiztoak auzi-egunean zigortzeko gordetzen. —2 Pedro 2:9

“Ez da ezer giza bihotza baino maltzurragorik, sendaezinagorik. Nork antzeman berari?”

—Jeremias 17:9

“Niri itsatsirik ez dagoena kanpora botatzen dute, ebaki eta ihartzen den aihena bezalaxe; gero, bildu, sutara bota eta erre egiten dute.”

—Joan 15:6

Errebeldeak denak batera suntsituko dituzte, gaiztoen geroa hondatura dago. —Salmo 37:38

JAINKOA EZAGUTZEKO, HAREN BILA IBILI BEHAR DUGU

Nire bila ibiliko zarete eta aurkituko nauzue, bihotz osoz ibiliko baitzarete nire bila.

—Jeremias 29:13

Dirua eta altxorrak bezala bilatzen... bazara, orduan... Jainkoa ezagutzera iritsiko zara.

—Esaera Zaharrak 2:4, 5

“Eskatu, eta emango dizue Jainkoak; bilatu, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaitzue.”

—Mateo 7:7

Izan ere, federik gabe ezinezkoa da Jainkoaren gogoko izatea, zeren Jainkoarengana hurbiltzen denak sinetsi egin behar

baitu hura badela eta haren bila dabiltzanei saria ematen diela.

—Hebrearrei 11:6

“Maite nautenak ditut maite, nire bila saiatzen direnek aurkituko naute.”

—Esaera Zaharrak 8:17

Jauna ona da berarengan ueste on duenarentzat, berarengana jotzen duenarentzat.

—Negar Kantak 3:25

“Eta hau guztia, Jainkoa bila zezaten, ea itsumustuka bederen aurkitzen zuten; izan ere, ez dago guretako bakoitzarengandik urruti.”

—Eginak 17:27

“Izan ere, bihozbera eta errukiorra da Jauna, zuen Jainkoa, eta ez zaituzte baztertuko, zuek berarengana itzultzen bazarete.”

—2 Kronikak 30:9b

Ona zara zu, Jauna, eta barkabera, dei egiten dizutenentzat onginahiz betea.

—Salmo 86:5

Hurbil da Jauna dei egiten diotenengandik, benetan dei egiten diotenengandik.

—Salmo 145:18

Niregana hurbiltzen denik ez dut inola ere kanpora botako.

—Joan 6:37b

Honela... “Zatozte, erabaki dezagun auzia, (dio Jaunak), zuen bekatuak gorria baino gorriago

badira ere, elurra bezain zuri gedituko dira; purpura bezain gorri izanik ere, artilearen antzeko bihurtuko dira.”

—Isaias 1:18

“Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena. Hartzazue nire uztarria et ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena.”

—Mateo 11:28, 29

“Egarri zareten guztiok, etorri uretara, etorri, dirurik ez duzenok ere! Etorri hartu garia eta jan, hartu ardoa eta esnea, dena hutsean, ordaindu gabe.”

—Isaias 55:1

“Nor zu adinakorik, Jauna,...
zure santutasunak dirdai egi-
tean?” —Irteera 15:11

“Ez da santurik Jauna bezala-
korik, ez da, izan ere, zu beste-
rik.” —1 Samuel 2.2a

Urruti Jainkoarengandik gaiz-
takeria, urruti Ahaltsuagandik
bidegabekeria! —Job 34:10b

“Santu, santu, santua, Jaun
ahalguztiduna! Lur osoa betetzen
du haren aintzak!” —Isaias 6:3b

“Nork ez zure begirune, Jauna?
Nork ez goretsi zure izena? Zu
bakarrik zara santu!”
—Apokalipsia 15:4a

Bai, hau dio garai eta goren
den Jainkoak, betiko erregeak,
santu deritzanak: “Toki garai
eta sakratuan bizi naiz.”

—Isaias 57:15a

“Inor ez da ona Jainkoa beste-
rik.” —Markos 10:18b

Gorets bezate haren izen handi
eta ikaragarria! Santua da be-
ra!

—Salmo 99:3

Goratu Jauna, gure Jainkoa,...
Santua da Jauna, gure Jainkoa!

—Salmo 99:9

“Santu, santu, santua Jauna,
Jainko ahalguztiduna, zena,
dena eta etortzekoa!”

—Apokalipsia 4:8b

JAINKOAREN HERRIAK BIZITZA SANTUAK BIZI BEHAR DITUZTE

9

Jainkoa bakarra dela sinesten duzula zuk? Oso ondo; baina deabruak ere sinesten dute hori, eta ikaraz daude. Burugabe hori, konturatuko al zara behingoz egin-tzarik gabeko fedea alferrikakoa dena?

—Santiago 2:19, 20

Jaunak higuin du jokabide gaiztoa, zuzentasun bila dabilena du maite.

“Ezagutzen dut Jainkoa” esan eta haren aginduak betetzen ez dituenak gezurti da, eta egia ez du beregan. Honetan agertzen da zein den Jainkoaren seme-alaba eta zein deabruarena: Jainkoa-

ren nahia egiten ez duena, hau da, bere senidea maite ez duena, ez da Jainkoaren seme-alaba.

—1 Joan 2:4; 3:10

Saia zaitezte guztiekin bakean bizitzen, eta izan santu; bestela, ez baitu inork Jauna ikusiko.

—Hebrearrei 12:14

Aitzitik, dei egin dizuen Jainkoa santu den bezala, izan zuek ere santu zeuen biziera guztian.

—1 Pedro 1:15

Nor egin hark sagaraturiko to-kian? Eskuak errugabe eta biho-tza garbi dituenak.

—Salmo 24:3b, 4a

10 JAINKOAK AGINTZEN DITUEN GAUZAK

**Zer nahi duen Jaunak zuregan-
dik? Hauxe, zuzenbidez jokatzea,
on izaten saiatzea, eta zure Jain-
koarekin apaltasunez bizitzea.**

—Mikeas 6:8b

**“Izan santu, ni, Jauna, zuen
Jainkoa, santua naiz eta.”**

—Lebitarrena 19:2b

**“Maita ezazu Jauna, zeure Jain-
koa, bihotz-bihotzez, gogo osoz,
indar guztiz eta adimen guztiz.
Eta lagunurkoa zeure burua be-
zala.”**

—Lukas 10:27b

**“Badakizkizu aginduak: ‘Ez hil
inor,’ ‘ez egin adulteriorik,’ ‘ez
ostu,’ ‘ez egin gezurrezko testi-**

**gantzarik,’ ‘ez egin kalterik,’ ‘o-
horatu aitamak.’”**

—Markos 10:19

**Ez egokitu mundu honen iritzie-
tara, eraberri zaitezte baizik, zeu-
en pentsaera aldatuz.**

—Erromatarrei 12:2a

**“Ez utzi lege-liburua irakur-
tzeari, hausnar ezazu gau eta e-
gun, eta saiatu bertan idatzia
betetzen; horrela, ongi aterako
zaizkizu ekinbide guztiak.”**

—Josue 1:8

**“Izan sinesmen Jainkoaren-
gan!”**

—Markos 11:22b

**“Gurtu ni, Jauna, zeuen Jain-
koa.”**

—Irteera 23:25a

JAINKOAK GORROTATZEN DITUEN GAUZAK 11

Sei gauza gorrotatzen ditu Jaunak eta zazpigarren bat erabat du higuigarri: begi harroak, mihi gezurtia, errugabearen odola isurtzen duten eskuak, asmo txarretan dabilen burua, gaiztakeria egiteko presa duten oinak, gezurra dioen lekuko faltsua, eta zazpigarrena, senide arteko lisarren sortzailea.

—Esaera Zaharrak 6:16-19

“Nik, Jaun honek, zuzenbidea dut maite, lapurreta eta bidegabekeria gorroto.” —Isaias 61:8a

“Koldarrek, ordea, sinesgabeek, gaiztoek, hiltzaileek, lizunek, aztiak, sasijainkozaleek eta gezur-

ti guztiek, suz eta sufrez garretan dagoen lakua, hau da, bigarren heriotza, izango dute ondare.” —Apokalipsia 21:8

Argi ibili, beraz, eta ez izan desleial gaztetan aukeratutako emazteari. Izan ere, emaztea gorrotatu eta uzten duenak, gogor-keriaz janzten du bere burua, dio Jaunak. —Malakias 2:15b, 16a

“Zuek zeuen buruak zintzo azaltzen dituzue jendearen aurrean, baina ezagutzen du Jainkoak zuen barrua; izan ere, gizakiak balio-tsutzat daukana, Jainkoarentzat mesprezagarri da.”

—Lukas 16:15b

12 JENDEAK EZ DITU BETETZEN JAINKOAREN BETEBEHARRAK

**“Baina ongi ezagutzen zaituztet eta badakit ez duzuela Jainkoa maite.”
—Joan 5:42**

Legeko agindu bat bakarra hausten duena, agindu guzti-ko errudun egiten da. Nola on egin jakin eta egiten ez duenak bekatu egiten du.

—Santiago 2:10; 4:17

**Nik esan nuen: “Ai ene, galdua naiz! Ezpain kutsatuak baititut eta kutsaturiko ezpainak dituen herrian bizi bainaiz. Bekatari izanik, Errege eta Jaun ahalguztiduna ikusi baitut neure begiz.”
—Isaias 6:5**

Eta honelaxe diote Liburu Santuek: “Ez da bat bere ere zuzenik.” Denek egin baitzuten bekatu eta denak aurkitzen dira gerroztik Jainkoaren aintzarik gabe.

—Erromatarrei 3:10, 23

Jainkoaren nahia egiten ez duena, hau da, bere senidea maite ez duena, ez da Jainkoaren seme-alaba.

—1 Joan 3:10b

Ardiak bezala genbiltzan galdurik, bakoitza geure bidetik.

—Isaias 53:6a

“Nork iraun dezake zutik Jainko Jaun santu honen aurrean ...?” —1 Samuel 6:20b

GEURE EGINTZARIK ONENEK EZIN DUTE 13

JAINKOA ATSEGIN IZAN

Horregatik, giza grinen menpean bizi direnak ezin daitezke Jainkoaren gogoko izan. Jainkoak ez du inor errugabetzat jotzen legea betetzeagatik. Aitorzen dut beraien artean jainkozale sutsuak badirela, baina ez dute zuzen ulertzen. Ez dute ulertu Jainkoak ematen duela salbamena, eta beren kabuz lortu nahi izan dute, Jainkoarengandik datorrena onartu gabe.

—Erromatarrei 8:8; 3:20a; 10:2, 3

Kutsaturik gaude guztiok, gure egintzarik onenak ere zapi zikinen antzeko.

—Isaias 64:5a

“Zintzoari bizi egingo dela esaten badiot, eta hark, bere zuzentasunaz fidatuz, bidegabekeria egiten badu, ez zaizkio bere egin-tza zuzenak kontuan hartuko eta hil egingo da bere bidegabekeria-gatik.”

—Ezekiel 33:13

Ez ni neurez zerbaitetarako gaitaizela uste dudalako; gaitasuna Jainkoarengandik datorkit.

—2 Korintoarrei 3:5

Gauza ageria da Jainkoak ez duela inor legea betetzeagatik onartzen; zeren Liburu Santuak baitio: “Zintzoa fedeari esker biziko da.”

—Galaziarrei 3:11

BEKATUAK JAINKOARENGANDIK ALDENTZEN GAITU

Gizon baten bidez sartu zen bekatur munduan, eta bekaturaren bidez heriotza; horrela, gizon-emakume guztiengana zabaldu zen heriotza, guztiek egin baitzuten bekatu.

—Erromatarrei 5:12

Zeuen erruek ezarri dute hesia zuen eta Jainkoaren artean; zeuen bekatur ezkutarazi diote aurpegia, zuen otoitzik ez entzuteko.

—Isaias 59:2

“Hau dio Jainkoak: ‘Zergatik hautsi dituzue Jaunaren aginduak? Gaizki bukatu behar duzue.

Zuek ni baztertu nauzuelako, nik ere baztertu egiten zaituztet.’”

—2 Kronikak 24:20b

“Aztikeria adinako bekatua da desleial izatea, sasi-jainkokeria bezain hutsala setakeria. Jaunaren esana baztertu duzulako, berak baztertzen zaitu orain erregetzatik.”

—1 Samuel 15:23

“Baina orduan eta gehiago ezkutatuko diet aurpegia, ... egingo duten gaiztakeriagatik.”

—Deuteronomioa 31:18

Bekatu egiten duena, hori hilkoda.
—Ezekiel 18:20a

Epaile zuzena da Jainkoa, gaizkilea zigorrik gabe uzten ez duena.
—Salmo 7:12

Ikusten ari gara Jainkoak bere haserrea agertzen duela gizonemakume guztien gain zerutik, sinestgabe eta zuzengabe direlako, eta beren zuzengabekeriaz egia ito egin dutelako.

—Erromatarrei 1:18

Zuzengabekeriaz, txarkeriaz, dirugosez eta gaiztakeriaz josiak daude; bekaizkeriaz, giza hilketaz, haserrez, azpikeriaz eta asmo gaiztoz beterik; izen onaren ken-

tzaile, gaizkiesale, Jainkoaren etsai, iraintzaile, harro handiputz, gaizkirako trebe eta gurasoekin bihurri dira; zentzurik eta leialtasunik gabeak, bihotzik eta errukirik gabeak. Badakite, bai, zein den Jainkoaren epaia: horrelakorik egiten duenak heriotza-zigorra merezi duela, alegia; baina, hala ere, horrelakoak beraiek egitea ezezik, ontzat ematen dute besteei egitea ere.

—Erromatarrei 1:29-32

Atsekabea eta larria emango dizkie gaizkia egiten duten guztiei.
—Erromatarrei 2:9a

Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakita dagoen bezala. —Hebrearrei 9:27

“Hona nik esan: Bakoitzak esan dituen alferreko hitz guztien kontu eman beharko du auzi-egunean.” —Mateo 12:36

Eta hildakoak ikusi nituen, handi nahiz txiki, tronuaren aurrean zutik. Liburuak ireki zituzten; beste liburu bat ere ireki zuten, biziaren liburua; eta hildakoak liburuetan idatzirik zegoenaren arabera epaitu zituzten, bakoitza bere egintzen arabera. Izena bi-

ziaren liburuan idatzirik ez zutenak ere suzko lakura jaurtiki zituzten. —Apokalipsia 20:12, 15

Izugarria da Jainko biziaren eskuetan erortzea!

—Hebrearrei 10:31

Jainkoak epaituko ditu gure egintza guztiak, onak zein txarrak, orobat ezkutukoak.

—Kohelet 12:14

“Berdin izango da munduaren azkenean: aingeruek etorri eta gaiztoak zintzoen artetik bereiziko dituzte, eta su-labera botako. Negarra eta hortz-karraska izango da han.” —Mateo 13:49, 50

GUK EZIN DUGU EZKUTATU JAINKOARENGANDIK

17

**Edonon daude Jaunaren begiak
gaiztoei eta onei begira.**

—Esaera Zaharrak 15:3

**Jauna, zuk ikertzen nauzu eta
ezagutzen: badakizu noiz esertzen
naizen eta noiz jaikitzen. Urru-
titik sumatzen dituzu nire buru-
tapenak. Ohartzen zara noiz na-
bilen eta noiz nagoen geldi. Ze-
hatz dakizu nire pausu guztien
berri. Oraindik ez dut hitza mi-
hian eta zuk, Jauna, badakizu e-
sango dudana. —Salmo 139:1-4**

**“Kontua ez da gizakiak zeri be-
giratzen dion, gizakiak itxurari**

**begiratzen baitio; Jaunak, berriz,
bihotzari.” —1 Samuel 16:7b**

**“Izan ere, begibistan dut haien
jokabidea; niretzat ez dute isil-
gorderik haien erruek.”**

—Jeremias 16:17

**Ez da harentzat munduan ezer
gorderik; dena dago agerian eta
zabalik, kontuak eman beharko
dizkiogun harentzat.**

—Hebrearrei 4:13

**“Ez dago ilunberik, ez itzal edo
gerizperik, gaizkileen gordeleku
izan daitekeenik.” —Job 34:22**

Hau diot nik, Jainko Jaunak:
 “Atsegin dudala uste al duzue
 gaiztoa hiltzea eta ez jokabidez
 aldatu eta bizitzea?”

—Ezekiel 18:23

“Ez horixe! Eta zuek ere, bihoz-
 berritzen ez bazarete, berdin
 hilko zarete denok.”

—Lukas 13:3

Bere hutsegiteak ezkutatzen di-
 tuenak ondoren txarra izango
 du, aitortu eta damutzen denak
 errukia lortuko.

—Esaera Zaharrak 28:13

“Baina garaiz zabiltzate orain-
 dik” — hala dio Jaunak —. “Itzul
 zaitezte niregana bihotz-bihotzez,

barau, negar, eta intzirika.”

—Joel 2:12

Itzul zaitezte Jaunarengana, e-
 giozue otoitz honela: “Barkatu
 bekatu guztiak, hartzazu onez.”

—Oseas 14:3a

“Honek lagunen aurrean kanta-
 tuko du esanez: ‘Bekatu egin eta
 zuzenbidea hautsi nuen, baina
 Jainkoak ez dit merezitakoa e-
 man.’ Hilobira erortzetik libratu
 nau, argiz beterik biziko naiz.”

—Job 33:27, 28

Itzul zaitezte, aldenu zeuen gaiz-
 takeria guztietatik eta ez zarete
 errudun bihurtuko.

—Ezekiel 18:30b

Utz beza gaiztoak bere bidea, gaizkileak bere asmo txarrak. Bihur dadila Jaunarengana, gupidaz hartuko baitu; bihurtu gure Jainkoarengana, guztiz barkaberra baita. —Isaias 55:7

Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik eta salbatzen ditu etsita daudenak. —Salmo 34:19

Orduan aitortu nizun bekatua, ez nizun gorde errua. Hobenak zure aitortzea erabaki nuen, Jauna, eta barkatu zenizkidan erru eta bekatuak. —Salmo 32:5

Geure bekatuak aitortzen badi-

tugu, orde, leiala eta zuzena den Jainkoak bekatuak barkatu eta gaiztakeria orotatik garbituko gaitu. —1 Joan 1:9

“Bihozberri zaitezte, bada, eta itzuli Jainkoarengana, bekatuak ken dakizkizuen.”

—Eginak 3:19a

Jainko Jaunak dioena iragarriko dut: bakea agintzen die bere herri eta fededunei, berari berrio konfidantza agertzen diotenei. —Salmo 85:9

Damutasunak esan nahi du bai pekatutik itzultzea bai pekatua aitortzea Jainkoari.

SAKRIFIZIOA BEHARREZKOA DA JAINKOAREKIN ADISKIDETZEKO

(Parekatu 14na orrialdearekin)

“Odolean dago, hain zuzen, izakiaren bizia. Jaunak odola eman dizue, aldarean isuri eta zeuen bekatuen barkamen-ohikunea egiteko. Izan ere, biziarekin duen zerikusiatatik lortzen du odolak bekatuen barkamena.”

—Lebitarrena 17:11

Legearen arabera, ia gauza guztien garbikuntza odolaren bidez egiten da, eta odol-isurketarik gabe ez dago barkamenik.

—Hebrearrei 9:22b

“Abereak urte batekoa behar-ko du izan, arra eta akasgabea.

...Odola ikustean, aurrera egingo dut; horrela,...izurriak ez zaituzte zuek suntsituko.”

—Irteera 12:5a, 13

Eta Isaakek esan zion: “Sua eta egurra badaramatzagu; baina non dugu oparitarako arkumea?” Abrahamek erantzun: “Utzi hori Jainkoaren esku, seme!” Jaso ziztuen begiak Abrahamek, ingurura begiratu eta bere eskuinean ahari bat ikusi zuen sasi artean adarretatik kateatua. Hartu eta erre-oparitzat eskaini zuen bere semearen ordez.

—Hasiera 22:7b-8a, 13

JESUS BILDOTSA DA JAINKOAK PRESTATZEKOA 21

**“Hona hemen Jainkoaren Bildotsa, munduko bekatua kentzen duena!”
—Joan 1:29b**

Gaizki tratatu zuten, eta bere apaldu egin zen, ahorik zabaldu gabe; hiltzera daramaten arku-meak bezala, moztailen aurrean isilik dagoen ardiak bezala, ez zuen ahorik zabaldu.

—Isaias 53:7

Gogoratu...askatuak izan zaretela,...ez gauza ustelkorrez, urrez nahiz zilarrez, baizik eta bildots garbi eta akasgabe bezala zuen alde eskaini den Kristoren odol baliotsuaz.

—1 Pedro 1:18, 19

Kristo behin-betirako sartu da santutegian, ez aker eta zekorren odola eskainiz, berea baizik, horrela betiko salbamena lortu digularik. Halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen oparitzat eskainia guztien bekatuak desegiteko.

—Hebrearrei 9:12, 28a

Zenbatez gehiago Kristoren odolak, betiko Izpirituaren bitartez akasgabeko oparitzat bere burua Jainkoari eskaini zion harenak, ez du garbituko gure barrua heriotzara daramaten egingtzetatik, Jainko biziari kultua emateko gai izan gaitezen!

—Hebrearrei 9:14

22 BERREROSPENA BAKARRIK JAINKOARI ESKER

Jainkoak bere onginahiaz eta dohain hutsez onartu ditu, Jesukristoren bitartez burutu duen askapenari esker. Jesukristok bere odola isuri zuen eta Jainkoak barkamen-bide egin du Kristo beronengan sinesten dutenentzat.

—Erromatarrei 3:24, 25a

“Badakigu, hala ere, Jainkoak ez duela inor onartzea legea betetzeagatik, Jesukristorengan sinesteagatik baizik.”

—Galaziarrei 2:16a

Dohain hutsez zarete salbatuak sinesmenaren bidez; eta hau ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren emaitza da; ez da-

tor egintzetatik, inor harro ez dadin.

—Efesoarrei 2:8, 9

“Profeta guztiek testigantza hau egiten dute hartaz: harengan sinets dezaten guztiek bekatuen barkamena hartuko dutela beraren bitartez.”

—Eginak 10:43

Honengan bakarrik dugu salbamena, ez baitigu Jainkoak gizon-emakumeoi beste inor eman eguzkiaren azpian, salba gaitza-keenik.

—Eginak 4:12

Semeak bere heriotzaz askapena eta bekatuen barkamena lortu dizkigu, Jainkoaren eskuzabaltasun agortezinaren erakusgarri.

—Efesoarrei 1:7

Jainkoak Gabriel aingerua bidali zuen Nazaret zeritzan Galileako herri batera, birjina baten-gana; birjinak Maria zuen izena, eta Jose zeritzan Dabiden jatorriko gizon batekin ezkontzeko hitzeman zegoen....Aingeruak esan zion: “Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko diote;...eta beraren erregetzak ez du azkenik izango.” Maria esan zion aingeruari: “Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi?” Aingeruak eran-

tzun zion: “Izpiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote....Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik.” Orduan, esan zuen Mariak: “Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala.” Eta aingeruak utzi egin zuen.

—Lukas 1:26b-38

Munduan sartu ziren bi gizon bakarrik sexuketa baten fruitua izan gabe Adan eta Kristo ziren. Adanek bekatua mundura ekarri zuen, baina Jesuek pekatuaren gain garaipena ekarri zuen.

Kristo Jesusek, Jainko-izaerako izanik, ez zion gogor eutsi nahi izan jainkozko bere mailari;... Gizaki huts bezala agertuz, apaldu egin zuen bere burua, heriotzaraino menpeko eginez, gurutzean hiltzeraino.

—Filipoarrei 2:6-8

“Aita eta biok bat gara. Nola diozue, bada, nik, Aitak sagaratu eta mundura bidali nauen honek, birao egiten dudala, ‘Jainkoaren seme naiz’ esateagatik?”

—Joan 10:30, 36

Jesukristo, betiko Hitzza, beti izan da. Mirari bat bidez, Jainkoak hura sortuarazi Mariaren sabelean. Haragiaz,

gizonen semea bezala ezagutzen da, eta izpirituz, Jainkoaren Semea ezagutzen da. Liburu Santuak “seme” hitza Jainkoa eta bere Hitzza — Jesukristoren — artean den harremana adierazteko erabiltzen du.

Horregatik, Kristok, mundu honetan sartzerakoan, Jainkoari esan zion: “...Baina gorputza eratu zenidan.”

—Hebrearrei 10:5

Hilen artetik biztu zenez gero, santu egiten duen Izpirituaz Jainkoaren Seme ahaltsu egina izan da.

—Erromatarrei 1:4

Tomasek erantzun zion: “Ene Jauna eta ene Jainkoa!”

—Joan 20:28

Ezbairik gabe, handia da gure erlijioaren misterioa: Kristo, gizaki bezala agertua.

—1 Timoteori 3:16a

Jainkoaren izaera Kristo gizon eginarengan dago bete-betean.

—Kolosarrei 2:9

Haur bat jaio zaigu, Jainkoak seme bat eman digu. Beroni ezarri zaio aginpidea, eta honela deitzen diote: “Kontseilari miragarri, Jainko indartsu, Aita betiereko, Errege bakemaile.”

—Isaias 9:5

Jesusek erantzun zien: “... Abrahan sortu baino lehenagokoa naiz ni.”

—Joan 8:58

Hitzarengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen. Munduan zegoen eta, mundua haren bidez egina izan arren, mundukoek ez zuten onartu.

—Joan 1:4, 10

Izan ere, bakarra da Jainkoa eta bakarra Jainkoaren eta gizon-emakumeen bitartekoa ere: gizon bat, Kristo Jesus, bere burua guztien salbamenerako ordainsaritzat eman zuena.

—1 Timoteori 2:5, 6a

Honengan dugu berrerospena, bekatuen barkamena. Jainko ikusezinaren irudi da Kristo.

—Kolosarrei 1:14, 15a

BIBLIA (LIBURU SANTUA) JAINKOAREN HITZA DA

Izan ere, antzinako profetek ez zuten beren kabuz hitzegin, baizik eta, Izpiritu Santuak gidaturiko gizonak zirenez, Jainkoaren partetik hitzegin zuten.

—2 Pedro 1:21

Hala hitzemanen zuen antzinatek bere profeta santuen ahoz.

—Lukas 1:70

“Jaunaren Izpiritua mintzo da niregan, haren hitza nire ahoan.”

—2 Samuel 23:2

Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da eta irakasteko, arrazoiak ema-

teko, okerra zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria.

—2 Timoteori 3:16

Liburu Santuetan idatzia dagoen guztia gure ikasbiderako dago idatzia, geure eramanpenaz eta Liburu Santuek ematen duten adoreaz itxaropenari euts diezaiozun. —Erromatarrei 15:4

“Oker zabiltzate. Liburu Santuetan esana eta Jainkoaren ahalmena ez dituzue ezagutzen.”

—Mateo 22:29b

Paregabe handi egin dituzu zeure izena eta promesa.

—Salmo 138:2b

Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizi-tzen.

—Joan 1:1, 14a

Jesusek Jainkoa agertzen du

Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren baitan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak eman digu haren berri.

“Distira beza argiak ilunbetan”

esan zuen Jainkoak berak biztu du argia gure bihotzetan, Jesukristoren aurpegian distira egiten duen Jainkoaren aintza argiro ezagut dezagun.

—2 Korintoarrei 4:6

Jainkoak hitz egiten du Jesusen bidez

Askotan eta era askotara hitzegin zien antzina Jainkoak gure arbasoei profeten bidez; azken egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitzegin digu. Seme horrexen esku utzi ditu gauza guztiak, egin ere berorren bidez egin baitzuen mundua.

—Hebreearrei 1:1, 2

“Maite ez nauenak, ordea, ez ditu onartzen nire hitzak. Eta adierazi dizuedan mezua ez dut neurea, bidali nauen Aitarena baizik.”

—Joan 14:24

28 HITZA IDATZITA ETA BIZIA PAREKATUA

Biblia janaria da animarentzat

Haren esanak barruan gorde
ditut. —Job 23:12b

“Gizakia ez da ogiz bakarrik
bizi, baizik Jainkoak esaten due-
netik bizi da.” —Mateo 4:4b

Biblia gure bidea argitzen du

Nire pausuentzat kriseilu da zu-
re hitza, nire biderako argi.
—Salmo 119:105

Azaldu zeure hitz argigarriak,
eman ulermena heldugabeei.
—Salmo 119:130

Jesus zerutik jaitsia den ogia da
“Neu naiz zerutik jaitsia den

ogi bizia; ogi honetatik jaten
duenak betiko bizia izango du.
Eta nik emanen dudana ogia nire
gorputza da, mundua bizi dadin
emana. Neu naiz bizia ematen
duen ogia.” —Joan 6:51, 48

Jesus munduaren argia da

Hitzarengan zegoen bizia, eta
bizia gizakien argia zen. Jesus
jendeari mintzatu zitzaion berri-
ro: “Neu naiz munduarentzat ar-
gia; niri jarraitzen didana ez da
ilunbetan ibiliko, baizik eta bizia
ematen duen argia izango du.”
—Joan 1:4, 8:12

**Bibliak bizi emankorra
ekartzen du**

Baizik eta Jainkoaren hitza atsegin duena eta hitz hori gau eta egun gogoan darabilena! Ur-xirripen ondoan landaturiko zuhaitzaren antzeko da: bere sasoiak fruitua dakar, eta ez zaio hostorik ihartzen; egiten duen guztia ongi zaio ateratzen.

—Salmo 1:2, 3

LIBURU SANTUEK JESUKRISTOREN ALDE TESTIGANTZA EGITEN DUTE

Eta, Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, Liburu Santuek berari buruz zioten guztia azaldu zien.

—Lukas 24:27

“Liburu Santuak arretaz azter-

**Jesusek bizi emankorra 29
ematen du**

“Zaudete niri itsatsiak, ni zuei bezala. Aihenak, mahatsondoari itsatsia ez badago, fruiturik eman ezin duen bezala. Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak. Norbait niri itsatsia badago, ni berari bezala, horrek fruitu asko emango du; ni gabe ezin baituzue ezer egin.” —Joan 15:4a, 5

tzen dituzue, betiko bizia haietan aurkituko duzuelakoan; horra, bada, Liburu Santuek ere nire alde egiten dute testigantza.”

—Joan 5:39

JAINKOAREN BETIKO HITZA EZ DA ALDATZEN INOIZ

Zure hitza, Jauna, betierekoa da, zerua baino iraunkorragoa.

—Salmo 119:89

Zure hitzaren funtsa leialtasuna da, zure betiko erabakien mui-na justizia.

—Salmo 119:160

“Ihartzen da belarra, zimeltzen lorea; gure Jainkoaren hitzak, ordea, betiko dirau.”

—Isaias 40:8

“Zeru-lurrek dirauten bitartean legearen hitz batek edo zeinurik txikienak ere ez du baliorik galduko, dena bete arte.”

—Mateo 5:18b

Liburu Santuek esana ukaezina da.

—Joan 10:35b

*Gizakiak ez du Biblia
aldatu behar*

“Saiatu nik ematen diskizuedan aginduak betetzen: ez erantsi, ez kendu ezer.”

—Deuteronomioa 13:1

Ez gehitu ezer haren hitzei, berak agiraka egin eta gezurtizat gera ez zaitezten.

—Esaera Zaharrak 30:6

Eta inork liburu profetiko honetako mezutik ezer kentzen baidu, Jainkoak kendu egingo du bera liburuan azalduko bizia ematen duen zuhaitzetik.

—Apokalipsia 22:19a

JESUSEN HERIOTZAK JAINKOAREN ASMOA BETE ZUEN

31

“Horregatik maite nau Aitak, neure bizia ematen dudalako eta horrela eskuratzen berriro. Ez dit bizia inork kentzen, baizik eta nik neurez ematen dut. Neure esku dut ematea, eta neure esku berriro hartzea.”

—Joan 10:17, 18a

“Ala uste al duzu ezin diodala Aitari dei egin? Hamabi aingerutalde eta gehiago jarriko lizkidake berehala ondoan. Baina nola beteko lirateke, orduan, Liburu Santuak, honela gertatu behar duela baitiote?”

—Mateo 26:53, 54

“Baina horrela bete zuen Jainkoak, profeta guztien ahoz aurrez iragarria, hots, haren Mesiasak sufritu egin beharko zuela.”

—Eginak 3:18

“Jainkoak zuen eskuetara eman zuen, bere asmoaren eta aurrez hartutako erabakiaren arabera, eta zuek gurutzean josi eta hil egin zenuten sinesgabeen eskuz.”

—Eginak 2:23

Jaunak oinazez josi nahi izan zuen. Eta bekaturen ordainetan bizia eman zuelarik, ondorengoak izango ditu.

—Isaias 53:10a

32 JESUSEN HERIOTZAKO LEKUKOAK ZIREN

Jesusekin batera, bi lapur gurutziltzatu zituzten, bata eskui-nean eta bestea ezkerrean. Hone-la bete zen Liburu Santuak dioena: “Bekatarien kidekotzat jo dute.” —Markos 15:27, 28

Joan ziren, bada, soldaduak eta hautsi zizkieten bernahezurrak Jesusekin gurutziltzatu zituzten biei. Baina, Jesusengana iristean, ordurako hilik zegoela ikusirik, ez zizkioten bernahezurrak hautsi; soldatu batek saihetsa zulatu zion lantzaz, eta bapatean odola eta ura atera ziren.... Hau Liburu Santuak dioena bete zedin ger-

tatu zen: “Ez zaio hezurrik hautsiko.” Eta beste pasarte batean hau dio: “Zulatu zutenari begiratuko diote.” —Joan 19:32-37

Eguerditik hirurak arte ilundu egin zuen lurbira osoan. Jesusek, berriro deiadar handia eginenez, azken arnasa eman zuen.... Lurrikara izan zen eta harkaitzak zartatu egin ziren. Lurrikarra eta gertakari guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta harekin Jesus zaintzen zeuden besteek, beldurrak jota, esan zuten: “Zinez, Jainkoaren Semea zen hau!”

—Mateo 27:45, 50-51, 54

“Baina Jainkoak biztu egin zuen, Herioren lokarrietatik askatuz, Heriok ezin baitzuen hura bere menpe eduki. Jesus hau biztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara lekuko.”

—Eginak 2:24, 32

Familia bateko seme-alabak haragi eta odol bereko diren bezala, horrelaxe hartu zuen parte Jesusek ere gizkiaren haragiodoletan, heriotzaren nagusi den deabrua heriotzaren bitartez indargabetzeko, eta heriotzaren bel-durrez beren bizitza osoan eskulabu bezala bizi zirenei askata-

sunu emateko.

—Hebrearrei 2:14, 15

“Bizi dena; hilik egon nintzen, baina orain bizirik nago menderen mendetan, eta neure menpe ditut Herio eta Hilen Egoitzako giltzak ditut.” —Apokalipsia 1:18

Jainkoaren indarra...orain agertu da, Kristo Jesus gure Salbatzailea munduan agertzean, honek heriotza ezereztu du eta biziaren eta hileskortasunaren argia zabaldu, berrionaren bidez.

—2 Timoteori 1:8b, 10

Herioak ez du harengan agintarik.

—Erromatarrei 6:9b

34 ZER EGIN BEHAR DUGU JESUSEKIN?

“Hara, atean nauzu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten badu eta atea ireki, harenean sartuko naiz, eta elkarrekin afalduko dugu.”
—Apokalipsia 3:20

Baina inolako lanik egin ez arren, erruduna errugabe egiten duen Jainkoarengan sinesten duena, sinesmen horri esker onartuko du Jainkoak.

—Erromatarrei 4:5

“Hartzazue Izpiritu Santua. Eskatu eta hartuko duzue, zuen poza bete-betea izan dadin.”

—Joan 20:22b; 16:24b

Izan ere, zeure ahoz Jesus dela Jauna aitortzen baduzu, eta zeu-

re bihotzean Jainkoak hilen artetik biztu zuela sinesten baduzu, salbatu egingo zara.

—Erromatarrei 10:9

“Aita nahiz ama ni baino maiteago duena ez da niretzat gai.”
Orduan, esan zien Jesus bere ikasleei: “Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin biezaio bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai biezat.”

—Mateo 10:37a; 16:24, 25

Haiek erantzun zioten: “Sinetsi Jesus Jaunarengan, eta zu eta zure etxekoak salbatuko zarete.”

—Eginak 16:31

Hauxe da testigantza: Jainkoak betiko bizia eman digula, eta bere Semearen bidez eman ere. Semea berekin duenak bizia du.

—1 Joan 5:11, 12a

Baina Jainkoak, ... geure bekatuengatik hilik geundelarik, bizia eman zigun Kristorekin batera.

—Efesoarrei 2:4a, 5a

Eta honez gero ez naiz ni bizi, Kristo bizi da niregan. Eta oraingo neure giza bizitza, maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini zuen Jainkoaren Semearenganako sinesmenean oinarriturik bizi dut. —Galaziarrei 2:20

Izan ere, Jesukristori esker, bizia ematen duen Izpirituaren legeak askatu egin zaitu bekatuaren eta heriotzaren legetik.

—Erromatarrei 8:2

Beraz, Kristorena dena sorkari berri da; zaharrarenak egin du, berria sortu da.

—2 Korintoarrei 5:17

Berriro jaio zarete, eta ez hazi hilkorretik, hileskorretik baizik, bizia den eta betiko dirauen Jainkoaren hitzetik. Haur jaioberriek bezala, irrika ezazue hitzaren esne garbia, horren bidez hazi eta salbamen betera hel zaitezten. —1 Pedro 1:23b, 2:2

36 JAINKOA AITA DA BERE HERRIARI

Umezurtzen aita, alargunen defendatzaile da Jainkoa bere bizileku santutik. —Salmo 68:6

Baina zu, Jauna, gure aita zara; gu buztina, eta zu buztinlaria: zeuk eginak gaituzu guztiok! Zeu zara, Jauna, gure aita, “Gure askatzaile” duzu izena betidanik. —Isaias 64:7; 63:16b

“Jarriozu izena ‘Ez nire-herria’, zuek ez baitzarete jadanik nire herri eta ni ez bainaiz zuen Jainkoa.” —Oseas 1:9b

Beraz, zuek, gaiztoak izanik, seme-alabei gauza onak ematen

baldin badakizue, zenbatez arago ez dizkie zeruko zuen Aitak gauza onak emango eskatzen dizkiotenei? Zuek, egizue otoitz honela: “Gure Aita zerukoa, agertu santu zeure izena.”

—Mateo 7:11, 6:9

“Neuk hartuko zaituztet. Aita izango naiz zuentzat, eta zuek seme-alaba niretzat. Hau dio Jaun ahalguztidunak.”

—2 Korintoarrei 6:17b, 18

Jainkoaren Izpirituak gidatzen dituenak Jainkoaren seme-alaba dira. —Erromatarrei 8:14

JESUSEN BITARTEZ JAINKOA AITA BEZALA EZAGUTZEN DUGU

37

Jesusek erantzun: “Neu naiz bidea, egia, eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue. Maite nauenak onartuko du nire mezua; nire Aitak maite izango du, eta Aita eta biok berarengana etorriko gara eta berarengan biziko.”

—Joan 14:6, 7, 23b

Jainkoak bere Semea bidali zuen...guk seme-alabatzakoa har genezan. Guztiok Jainkoaren se-

me-alaba zarete, Jesukristorengan duzuen sinesmenari esker.

—Galaziarrei 4:4b, 5b; 3:26

Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.

—Joan 1:12

Baina, norbaitek bekatu egiten badu, badugu Laguntzailea Aitarengan aurrean, zuzena da Jesukristo.

—1 Joan 2:1b

Zeren bai batzuk eta bai besteok hurbil baikaitezke Aitarengana Izpiritu berarengan elkarturik.

—Efesoarrei 2:18

38 JESUSEK MAITASUNA, POZA, BAKEA DAKAR

Jainkoa maitasuna da, eta maitasunean dirauena Jainkoarekin bat eginik dago eta Jainkoa harekin.

—1 Joan 4:16b

Izan zaitezte elkarrentzat on eta bihozbera, elkarri barkatuz, Jainkoak Kristoren bitartez barkatu dizuen bezala.

—Efesoarrei 4:32

“Honetan ezagutuko dute guztiek zuek nire ikasle zaretela: zuek elkar maite izatean.”

—Joan 13:35

Bizirako bidea erakutsiko didazu: alaitasun betea zure aurrean, betiko zoriona zure ondoan.

—Salmo 16:11

Izpirituaren fruitua, berriz, hau da, maitasuna, poza, bakea.

—Galaziarrei 5:22a

Beraz, Jainkoak sinesmenaren bidez onartu gaituelarik, bakean gaude berarekin, Jesukristo gure Jaunari esker.

—Erromatarrei 5:1

“Bakea, neure bakea, ematen dizuet; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez izan beldur.”

—Joan 14:27

Eta...Jainkoaren bakeak zainduko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.

—Filipoarrei 4:7

JESUSEK BERE EGIAZKO JARRAITZAILEAK 39

BIZTUKO DITU

Jesus hilen artetik biztu zuen Jainkoaren Izpiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik biztu zuenak berak biziaraziko ditu zuen gorputz hilkorrek ere, zuengan bizi den bere Izpituaren bitartez. —Erromatarrei 8:11

“Hauxe da nire Aitak nahi duena: Semea ikus eta harengan sinets dezanak betiko bizia izan dezala; eta neuk biztuko dut azken egunean.” —Joan 6:40

Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon ba-

ten bidez etorri zen hildakoen biztuera ere. Eta Adanekin duten batasunagatik gizaki guztiak hiltzen diren bezala, Kristorekin duten batasunagatik guztiak itzuliko dira bizira. Baina bakoitza bere garaian: lehenengo Kristo, lehen fruitu bezala; gero, Kristorenak, hau berriro etortzean. —1 Korintoarrei 15:21-23

“Nik bizia baitut eta zuek ere biziko baitzarete.” —Joan 14:19b

Kristorekin hil bagara, sinesten dugu bizi ere berarekin biziko gara. —Erromatarrei 6:8

EZ EZAZU ARDURAGABE SALBAMEN BEREZI HAU

Moisesen legea hausten duenari heriotza-zigorra ematen zaio gupidarik gabe, bi edo hiru lekukoaren aitorpenaz. Zenbatez zigor handiagoa ez ote du mereziko Jainkoaren Semea hankapean erabili, sagaratu duen ituneko odola profanatu eta Jainkoak onginahiz eman dion Izpiritua iraintzen duenak!

—Hebrearrei 10:28, 29

“Ni ukatu eta nire irakatsiak onartzen ez dituenak, badu nora gaitzetsi.” —Joan 12:48a

“Horregatik esan dizuet, zeuen bekatuan hilko zaretela; zeren ni

naizena naizela sinesten ez baduzue, zeuen bekatuetan hilko baitzarete.” —Joan 8:24

“Entzun zuek, nire adiskideok. Ez izan beldurrik gorputza hil bai, baina hortik aurrera ezer egiterik ez dutenei. Esango dizuet nori izan beldur: Izan beldur hiltzeko eta ondoren ifernura jaurtikitzeko ahalmena duenari. Bai, izan beldur horri!”

—Lukas 12:4, 5

“Semearengan sinetsi nahi ez duenak ez du bizia ikusiko, baizik eta Jainkoaren zigorra du bere gainean.” —Joan 3:36b

“Erabakia baitu mundua justiziaz epaituko duen eguna, eta horretarako ezarri duen gizonaren bidez epaituko ere, berau hilen artetik biztuz denei ziur erakutsi dien bezala.”

—Eginak 17:31

Guztiok Kristoren auzitegian agertu behar baitugu, nork bere ordaina jasotzeko, saria nahiz zigorra, gorputzean bizi garelarik egindakoaren arabera.

—2 Korintoarrei 5:10

“Aitak ez du nor ere epaitzen, baizik eta epaitzeko ahalmen guztia Semearen esku utzi du, guztiek, bere ohoratzen duten

bezala, Semea ere ohora dezaten. Semea ohoratzen ez duenak, hura bidali duen Aita ere ez du ohoratzen.”

—Joan 5:22, 23

Jainkoak Jesukristoren bidez ...gizon-emakumeen barrua epaituko duen egunean.

—Erromatarrei 2:16b

...Jesus Jauna bere aingeru ahaltsuekin zerutik agertuko duen, sugarrez inguraturik agertuko da, Jainkoa aintzat hartu nahi ez eta Jesus gure Jaunaren berriona onartu nahi ez dutenak zigortzera.

—2 Tesalonikarrei 1:7b, 8

42 JESUS JARRAITZEN AITORTZEN DUTEN GUZTIAK EZ DIRA JESUSENA

Hitzez aitortzen dute, bai, Jainkoa ezagutzen dutela; baina egitez ukatu egiten dute.

—Titori 1:16a

Norbaitek Kristoren Izpiritua ez badu, hori ez da Kristorena.

—Erromatarrei 8:9b

“Nire herria zure aurrean eseritzen da; entzuten dituzte zure hitzak, baina bete ez; atsegin dituzte zure hitzak, baina beren probetxu bila dabiltza barruan.”

—Ezekiel 33:31b

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik urrun du bihotza.”

—Mateo 15:8

“Ez da aski niri ‘Jauna, Jauna’ esatea, Jainkoaren erreinuan sartzeko; zeruko nire Aitaren nahia behar da egin. Epai-egunean askok esango didate: ‘Jauna, Jauna! Ez ote genuen zure izenean hitzegin eta zure izenean deabruak bota eta zure izenean mirari asko egin?’ Baina nik erantzungo diet: ‘Ez zaituztete inoiz ezagutu; alde niregandik, gaizkileok!’”

—Mateo 7:21-23

“Berdin zuek, azaletik zintzoak jendaurrean, baina barrutik itxurakeriaz eta gaiztakeriaz beteak.”

—Mateo 23:28

JESUSEN EGIAZKO JARRAITZAILEEK OBEDITZEN DIOTE

43

Jainkoaren aginduak betetzen baditugu, ziur dakigu bera eza-gutzen dugula. —1 Joan 2:3

“Neure Izpiritua ezarriko dut zuengan, nire legeen arabera jokatzeko eta nire aginduak arre-taz betetzeko gai bihurtuz.”

—Ezekiel 36:27

Horrela, bete-beteko izatera iritsi zelarik, betiko salbamena-ren iturri bilakatu zen berari o-beditzen dioten guztientzat.

—Hebrearrei 5:9

Eta, bekatutik askatuta, ongia-ren zerbitzura jarri zarete.

—Erromatarrei 6:18

Izan ere, Jainkoak eginak ga-ra; Kristo Jesusengan sortu gai-tu, on egiten saia gaitezen, Jainkoak guretzat aurrez erabakia zuen bezala. —Efesoarrei 2:10

Horrela bizitzen bazarete, hil egingo zarete; baina Izpiritua-ren bidez giza egintza gaiztoei uko egiten badiezue, bizi egingo zarete. —Erromatarrei 8:13

Pedrok eta beste apostoluek e-rantzun zuten: “Jainkoaren esa-na egin behar da lehenik, ez gizakiena.” —Eginak 5:29

MUNDUAK JESUSEN JARRAITZAILEAK GORROTO DITU

“Munduak gorroto badizue, jakizue zuei baino lehen neuri izan didala gorroto. Mundukoak bazinete, munduak maite izango zintuzkete, nork berea maite duen bezala; baina nik aukeratu eta mundutik atera zintuztedanez, munduak gorroto dizue, mundukoak ez zaretelako.”

—Joan 15:18, 19

“Badator ordua, zuek hilko zaituztenak Jainkoari kultu ematen diola uste izango duena. Eta horrela jokatu dute ez Aita, ez ni, ezagutu ez gaituztelako.”

—Joan 16:2b, 3

“Larrialdi asko eraman behar dugu Jainkoaren erreinua sartzeko.”

—Eginak 14:22b

Kristo Jesusen jarraitzaile zintzo bezala bizi nahi duten guztiek ere izango dituzte, bai, erasoaldiak.

—2 Timoteori 3:12b

“Munduan larrialdirik izango duzue; baina izan adore! Nik garaitua dut mundua.”

—Joan 16:33b

“Zure mezua adierazi diet nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, neu ere mundukoa ez naizen bezala.”

—Joan 17:14

“Ez izan beldur, zeurekin bainauzu; ez larritu, zure Jainkoa bainaiz. Neure laguntzaz ahaltsu egiten zaitut, neure esku garai-leaz eusten dizut.” —Isaias 41:10

Aitamek zapuzten banaute ere, Jaunak berekin hartuko nau.
—Salmo 27:10

Beraz, uste osoz esan dezakegu: “Jauna dut neure alde, ez naiz beldur: zer egin dezake nire kontra gizakiak?”
—Hebrearrei 13:6

Zorionekoak zuek, kristau izateagatik iraintzen bazaituztete, honek Jainkoaren Izpiritu ospe-

tsua zuengan dagoela esan nahi du eta.
—1 Pedro 4:14

Bere aingeruei aginduko die zu nonnahi ere zaintzeko.
—Salmo 91:11

Ibar beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude: zure artzain-makilak lasaitzen nau.
—Salmo 23:4

Dena dezaket indartzen nauen Kristorengan. Nire Jainkoak, bere aldetik, bere aberastasun harrigarriaren arabera erantzungo dizue zeuen premia guztietan, Kristo Jesusen bitartez.
—Filipoarrei 4:13, 19

PEKATU ETA SATANASEN GAINEAN GARAIPENA

Ez zaizue gainera etorri giza indarrez gainditu ezin ahalako tentaldirik; leiala da Jainkoa, eta ez du utziko zeuen indarrez gaindiko tentaldirik izan dezazuen. Aitzitik, tentaldiarekin batera indarra ere emango dizue, tentaldia garaitu ahal izateko.

—1 Korintoarrei 10:13

Hurbil gaitezen, bada, konfiantza osoz Jainkoaren onginahia-
ren tronura, errukia iritsi eta premialdian laguntza izan deza-
gun.

—Hebrearrei 4:16

Baina argitan bagabiltza, Jainkoa ere argitan dagoen bezala,

elkartasuna dugu geure artean, eta haren Seme Jesusen odolak bekatu guztitik garbitzen gaitu.

—1 Joan 1:7

Jar zaitezte, bada, Jainkoaren menpean; egiozue aurre deabruari, eta ihes egingo du zuengandik.

—Santiago 4:7

Gogoan jasotzen dut zuk hitzema-
na, zure aurka bekatu ez egi-
teko.

—Salmo 119:11

Zuengan dagoena munduan da-
goen baino handiagoa baita.

—1 Joan 4:4b

EGIAZKO OTOITZA JAINKOAREKIN ELKARTASUNA DA

47

Bihotzak esaten dit: “Ea, bila ezazu Jaunaren aurpegia.” Zure aurpegiaren bila nator, bai, Jauna. Izan beti harengan konfidantzaz, haren herri zaretenok! Zabaldu hari zeuen bihotza! Jainkoa dugu babesleku!

—Salmo 27:8; 62:9

Jauna, senda nazazu eta sendatua geldituko naiz, salba nazazu eta salbatua izango. Zu zaitut goستن!

—Jeremias 17:14

Egin otoitz aspergabe. Eman eskerrak beti, Jainkoak horixe eskatzen baitizue, Kristo Jesu-

senak zaretenez.

—1 Tesalonikarrei 5:17, 18

“Niri itsatsirik bazaudete eta nire irakatsiek zuengan tinko irauten badute, eskatu nahi duzuen eta izango duzue.”

—Joan 15:7

Asmo okerrak izan banitu, Jauna ez zidakeen entzungo. Zarena zarelako, barka nire errua, Jauna, hain handia den arren!

—Salmo 66:18; 25:11

Agertu Jainkoari zeuen eskabi-deak, otoitz eta erregu eginez eta eskerrak emanez.

—Filipoarrei 4:6b

Zeren, goiaingeruaren ahotsez eta Jainkoaren turutotsez seinalea emanik, Jauna bera jaitsiko baita zerutik, eta aurrena Kristorekin bat eginik hildakoak biztuko dira; gero gu, artean bizi-rik izango garenok, haiekin batean eramango gaituzte hodeietan, airean Jaunarekin topo egingo gara.

—1 Tesalonikarrei 4:16, 17

Ene maiteok, honelako agintzariak ditugunez gero, garbi gaitzen gorputzeko eta izpirituko zikin guztietatik, eta eraman dezagun bere betera geure sagarape-

na, Jainkoarenganako begiruan biziz. —2 Korintoarrei 7:1

Beraz, semetxook, zaudete Kristorekin bat eginda, bera agertzean konfidantza osoa izan dezagun, eta etorriko denean, lotsaturik, harengandik urrun geldiz gaitezten.

—1 Joan 2:28

Senideok, ez ibili bata bestearen aurka marmarka, kondentatuak izan ez zaitezten, ate-atean baita gure epailea. —Santiago 5:9

“Egon prest zuek ere, gutxien uste duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea.”

—Lukas 12:40

BETE ZAITEZTE JAINKOAREN IZPIRITUZ

Onar ezazu nire zentzarazpena! Neure izpiritua zabaldu nahi dut zuengana, ene mezua adierazi. —Esaera Zaharrak 1:23

“Bihozberri zaitezte eta bataiatu guztiok, Jesus Mesiasen izenean bekatuak barka dakizkizuen, eta Izpiritu Santua hartuko duzue dohain.” —Eginak 2:38b

Ez mozkortu, ardotik nasaike-ria baitator; aitzitik, bete zaitezte Izpirituaz,...gauza guztien-gatik Jainko Aitari etengabe eske-rrak eman ez, Jesuskristo gure Jaunaren izenean. Izan zaitezte elkarren menpeko Kristori dio-

zuen begiruneagatik.

—Efesoarrei 5:18, 20, 21

Jainkoa da, izan ere, bai nahi izateko eta bai burutzeko gai e-giten zaituztena, berak nahi be-zala. —Filipoarrei 2:13

Ez al dakizue Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Izpiritua zuengan bizi dela? Garesti or-dainduz eskuratu baitzaituzte Jainkoak. Goretsazue, bada, Jain-koa zeuen gorputzaz.

—1 Korintoarrei 3:16; 6:20

Denak Izpiritu Santuz beterik gelditu ziren, eta Jainkoaren hi-tza ausardiaz predikatzen zuten.

—Eginak 4:31b

Published in numerous languages by World Missionary Press, Inc., as God supplies funds in answer to prayer. **For questions or more information by country, visit: www.wmp-contacts.org**

Dohainik emateko, Ez Saltzeko

World Missionary Press
PO Box 120
New Paris, IN 46553-0120 USA
www.wmpress.org

12-24



Read booklets online or by App
www.wmp-readonline.org
1574 Basque HKG